

Herri hezitzaileak ikasturte berriaren aurrean



Ikasturte berria hasita protokolo ezberdinak jarri dira martxan herrietako esparru ezberdinetan. Erraza da egiten den hori kritikatzeko edo gaitzestea, baina nola eraiki herri hezitzaile bateko dinamika pandemiaren garaian?

EHko eragile desberdinek proposamen anitz eta interesgarriak egin dituzte gaur egungo egoeran haurrak modu duin batean tratatuak izan daitezzen eta elkarrengandik ikasteko asko dugula hasieratik agerian utzita, ikasturteari ekiteko gako edo irizpide batzuk proposatu nahi genituzke.

DIAGNOSTIKOA:

1- IKASTETXEEN BEHARRAK AZTERTU

Ikasturtea hasi aurretik ere ziur gaude udal ezberdinek harreman estua izan dutela beren herriko ikastetxe ezberdinekin. Hauen beharrak aztertu eta udalak ahal duen heinean eskura dituen baliabideekin laguntza eskaintzea beharrezko ikusten dugu.

Espazio arazoak direla eta adibidez, badira Euskal Herrian kanpo espazioaren erabilera sustatzen ari diren eskola ugari: klaseak emateko, naturarekin kontaktua berreskuratzeko, jolas-ordu tarteak modu duinago batean bermatzeko, ... Kontuan hartu beharrezkoa da psikomotrizitate gelak edo soinketarako gelak itxi edo mugatu behar izan direla zentro askotan, eta gure inguruko baso, zelai nahiz parkeak ikastetxeen esku jartzea eta berauetara iristeko bideak errazteak asko lagundu lezake beraz, gabezia horri erantzuten.

2- ZERTAN DA AISIALDI HEZITZAILEA?

Haurren jolasa bermatuko duen politika ziurtatu beharra dago. Haurrek ezinbesteko dute jolasa, jolas librea nahiz gidatua, beren osasun fisiko zein emozionalerako. Gaur egungo protokolo hauekin, obesitatea bezalako osasun arazo larriak etor litezke gerora adibidez. Eskolen irekiera sustatu dugun bezalaxe, beharrezkoa da aisialdi hezitzailean oinarritutako egitasmoak ere ikasturtearekin batera martxan jartzea. Gozamenez, askatasunez eta plazerez beteriko testuinguruak eskeintzeko aukera dago aisialditik, berrasmatu eta balioan jar dezagun.

Haurrek eta nerabeek garaiotan dituzten beharrak identifikatzea izango da lehenengo erronka. Gauzak horrela ikastetxeak, ludotekak edo gaztelekuak erabili ditzakegu beraingana heldu eta zuzenean hauen beharren lanketa bat egiteko. Udalerri batzuetan haurren kontseiluak edo haurren mahaiak ere badaude osatuta eta hau ere izan liteke diagnostiko honetarako tresna bat.

Eskolaz kanpoko ekintza zein zaintza hezitzailean oinarritzen diren ekimenak ere babestearen alde egingo dugu, haurrek ere eskolaz kanpoko ekintzez gozatzeko aukera izan dezaten, kalitatezkoak eta ziurrak diren ekintza hezitzaileen bitartez. Honez gain, eskolaz kanpoko zein zaintza hezitzailean oinarrituriko ekintzak familia kontziliaziorako edota egoera zaurgarrienean egon daitezkeen familientzako laguntza ere badira.

Hainbesteko erraztasunik ez dagoen herri edo hirietan guraso elkarteekin bilerak egitea izan liteke behar horietara hurbiltzeko modu bat. Gurasoek bitartekari lana egin dezakete eta etxeetan dituzten beharren berri ere eman diezagukete.

3- ELKARTEKIN HARREMANAK

Ezin ditugu ahaztu gure herrietan ditugun elkarte eta eragile ezberdinak. Pandemiak gogor kolpatu ditu hauek ere eta beraien egoera ere ez da xamurra izango kasu askotan.

Herrian ditugun kirol, kultur edo aisialdi elkarteak adibidez aliatu oso indartsuak izango dira herrian sustraitu nahi dugun dinamika hezitzaile integral horri ekiteko eta eskolaz kanpo ere haur eta nerabeek, eta baita gazte eta helduok ere, aisialdi hezitzaile batez gozatzeko aukera izateko.

Gauzak horrela gure aliatuak mimatu beharko ditugu elkarlanean aritzeko izaten duten berezko borondatea ahalik eta gehien indartzeko.

4- KONTUAN HARTZEKO HAINBAT AZPIMARRA:

- **Politika inklusiboa.**

Zaugarrienak diren haur, nerabe eta familiak oso presente izan behar ditugu beren eskubideak zapuztuak izan ez daitezen. Tratamendu bereziak behar dituzten haur eta nerabeak ezin ditugu alde batera utzi pandemia honen aitzakia pean: tratamendu ezak osasunerako kalte izugarriak ditu, eta hauek bermatu behar ditugu.

Gure herrietako aniztasunaren argazki erreal bat atera beharko dugu martxan goazela bide ertzean inor utzi ez dezagun.

- **Euskara**

Pandemia honek izugarrizko kolpea eman dio Euskarari. Ez birusak berak, birusari aurre egiteko diseinatutako politiketan euskarari eman zaion trataera urri eta lotsagarriak baizik.

Haur eta nerabeen kasuan, inguru batzuetan hilabete gehiegi pasa dituzte euskararekin apenas kontakturik izan gabe. Proposamen zehatzak egin behar dira erabilpena sustatu eta haur eta nerabeek, eskolan nahiz eskolaz kanpo, euskaraz jarduteko aukerak izan ditzaten.

- **Partaidetza eta hitza ematea.**

Pandemia honek ohitura berriak, bizi estilo berriak eta politika egiteko modu berriak ere ekarri ditu. Komunitate bezala indartu beharra dugu, elkarri entzun eta elkar zaintzeko beharra dugu.

Aukera ezin hobea da beraz, haur eta nerabeei hitza eman eta haien iritzi eta nahiek gure herrietako politiketan eragin dezaten: parke eta espazio publikoen erabilera eta eraldaketan; beraiei dagozkien erabakietan; etab...

Komunitate osasuntsuak

Gure eskuetan dago egoera berri honi nola erantzungo diogun, nolako egiturak erabiliko ditugun, berrindartzeko eta eraldatzeko aukera ere bada hau, osasun integrala (fisiko, emozional zein mentala) erdigunean jarri eta komunitate osasuntsuak osatzen hasteko.

ELKARREKIN AURRERA

1- ERAGILEEN ARTEKO MAHAIAK

Ikasturte berri honetan elkarlan sareak eratzea eta herriko beharrei erantzun komunitarioak ematea dagokigu.

Asko izango dira herriko ikastetxe eta elkarteek dituzten beharrak, baina gure ardura zaugarrienak diren herritar horien (haurrak eta nerabeak, emakumeak, etorri berriak, adinduak...) ahotsak ere entzunaraztea da.

Puntu honetara iritsita ditugun beharrei erantzunak emateko eskatzearekin batera eskaini dezakegunari buruzko hausnarketa ere egin behar dugu. Hala, herriko eragile ezberdinen arteko mahaiak, foroak edo lankidetzak sustatuta, guztion artean, ikastetxeen egoerak erraztu eta haur eta nerabeentzako aisialdi eta kultura eskaintza bat sortzea ere errazagoa izango da.

Indarrak neurtuta hasiko gara, gabonak arteko plangintzatxo bat osatu genezake lankidetzara batzen diren elkarteekin. Honek balorazio bat egin eta gerora ikasturteko hurrengo erronkei heltzen lagundu lezake. Indartsu sentitzen bagara aldiz ikasturte guztiari heldu diezaiokegu.

2- ARDURAK BANATZEA

Zalantzaz betetako garaiotan erraza da ardurak besteen gain uztea edo baita ongi egindakoa txalotu beharrean gaizki egiten denaren errudunak bilatzen aritzea ere.

Egoera honetan herritarrekin aliatu eta elkarren borondatean eutsita egingo dugu aurrera. Egoera honetan gure esku dagoena egingo dugu, birusarekin elkarbizitzan gauden momentu honetan pauso guztiak ondo emanda ere zerbait okertu litekeela dakigun arren (birusaren kutsadura kasuren bat agertu liteke adibidez) guzti guztia beraz gure esku ere ez dagoela badakigu.

Horrelako uneetan baina, aurreko lan guztia zakutik hartzera bota beharrean egin den horretatik ikasi eta hurrengo urratsak hobeto diseinatzeko borondatez heldu behar diogu lanari.

Politikarik egokiena, ardura partekatzen duena.

3- BELDURRAREN DISKURTSOA DESERAIKITZEN

Herritar ororen osasunaren alde egiten dugu, osasun integralaren alde eta beraz, osasuntsuak diren komunitateak osatzea da helburua. Osasun fisikoaz gain, osasun emozional zein mentalari erreparatuz eta egoera honetan ere pausuak aurrera emanez.

Ezjakintasun handia dago birusaren inguruan eta beldurra, azken hilabeteetan oso presente dagoen emozioa da. Bakoitzaren beldurrek kolektiboa den erro bat dute, beraz kezka konpartitu eta kolektibizatzeke guneak sortu, irtenbideak bilatu eta pandemia garai honetan bizitzen ikasi beharko dugu.

Zuhurtziaz jokatuta, kutsadurak saihesteko (maskarak, eskuak sarri garbitzea...) edo birusaren gehiegizko hedatzeak kontrolatzeko (burbuila taldeak) neurriak hartuta ukazio mezuetatik, "Hau ezin da egin", "Hori arriskutsua da"... eraikuntza klabe positiboetan jartzeko ordua heldu da: "Hau egitera goaz! Nola egingo dugu?" eta herri bezala erantzunez gero galdera gehienei aurkituko diegu erantzuna.

Herriek aurrera egiteko aukera izugarria da, krisialdiei nola erantzuten diegun da gakoa. Krisialdietatik indarberritzea, aurreko egiturak eta egiteko moduak zalantzan jartzea, zaintzaren alde egitea eta komunitate osoaren alde lan egitea. Aurrera begiratzeko hautua egitera gonbidatzen zaituztegu, nolako herriaren alde egingo dugu?



